



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/04/18

## **Gernikako Batzarretxeak inoizko marka guztiak gainditu ditu Aste Santuan izandako bisiten kopuruan**

Azkenengo jai egunek baieztu egin dabe barriro Gernikako Arbola dagon lekuak jendea erakarteko dauen indarra. Gernikako Batzarretxeak askogaitik gainditu dau igazko Aste Santuan lortutako bisitarien kopurua, igazkoa be historiako hoberenetakoa izan zan arren. Aste Santuko bost jaiegunetan bakarrik, 7.855 pertsona hurbildu dira Bizkaiko Batzarren egoitzara. Kopuru horrek %35ean hobetzen dau igazko turistaren kopurua, eta atzean izten dau orain arte 2005ean izandako erregistro hoberena, urte haretan 7.199 bisitari etorri ziralako.

Bizkaiko batzarretako moltso arkitektonikoak, Gernikako Arbolak atsedean hartzen dauen lekuak, 1.500 pertsona baino gehiago jaso ditu batez beste. Bisitarien erdia baino gutxiago – 3.249– Euskal Herritik etorritakoak izan dira. Ganerako gehienak Estaduko beste autonomia erkidego batzuetatik etorri dira, katalanak batez be (1.191). Europako herrialdeetatik etorritakoen artean azpimarragarriak dira frantsesak (290).

Bisitari kopuruak indartu egiten dau Batzarretxea eta Gernikako Arbola Bizkaia bisitetan daben pertsonentzako ezinbesteko geralekua bilakatu dirala dinoan idea. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren bihotzean dagon batzarren egoitzak 100.000 bisitari baino gehiago jasoten ditu urtero, familiak batez be, eta horrek Bizkaiko turismo-kultura erakarpen gune garrantzitsuenetakoa bilakatzen dau, Guggenheim Museoaren eta Arte Ederren Museoaren ostean bakarrik.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
18/04/2017

## **La Casa de Juntas de Gernika bate su récord de visitas en Semana Santa**

Los últimos días festivos han vuelto a confirmar el poder de atracción que posee el lugar donde reside el Árbol de Gernika. La Casa de Juntas ha pulverizado el registro de visitantes logrado durante la Semana Santa del año pasado, que ya se convirtió en una de las mejores marcas de su historia. Sólo en los cinco días festivos –de jueves a lunes- se acercaron al recinto parlamentario vizcaíno 7.855 personas. Esta cifra supone mejorar la llegada de turistas en un 35% con respecto al año pasado y dejar atrás el mejor registro que fue el de 2005 cuando cruzaron la puerta de entrada 7.199 visitantes.

El conjunto arquitectónico del parlamento vizcaíno ha recibido una media de más de 1.500 personas cada día. Un 41% de los visitantes -3.249- provino de Euskal Herria. El resto llegó de otras Comunidades Autónomas, en donde destacó la presencia de catalanes (1.191), así como de países europeos como Francia. Gernika captó la atención de 290 personas del país vecino.

Los números de este año refuerzan la idea de que la Casa de Juntas y el Árbol de Gernika se han convertido en parada obligada para las personas que visitan Bizkaia. Localizado en pleno corazón de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, la sede parlamentaria recibe la visita de más de 100.000 personas cada año, eminentemente con un marcado perfil familiar, lo que le convierte en uno de los principales iconos turístico-culturales del territorio, solo por detrás del Museo Guggenheim y del museo Bellas Artes.